

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Errezeten goialdean eskuinean dagoen kodigo batek sendagaiengatik egiten den ekarpen-mota adieraziko du

Osasun Departamentuak uztailaren 2tik 13ra telefono bat eskura jarriko du herritarren zalantzak argitzeko

Jueves, 28 de junio de 2012

Uztailaren 1etik, igandea, osasun-langileek emango dituzten errezetek kodigo bat izango dute goialdean, eskuinean; horrek adieraziko du pertsona bakoitzak sendagaiengatik zer ekarpen-mota egin beharko duen.

Kodeak honako hauek izango dira:

- TSI 001: ekarpenik gabe
- TSI 002: % 10eko ekarpena
- TSI 003: % 40ko ekarpena
- TSI 004: % 50eko ekarpena
- TSI 005: % 60ko ekarpena

Osasun Departamentuak adierazi duenez, herritarren batek emandako kodea zuzena ez dela hautematen badu, [Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Lurralde Ordezkaritza](#)n azaldu beharko du.

Gainera, Itzultzeko eskubidea duten ekarpen-taldeetan dauden pertsonen gomendatzen die, pazientearen datuak azaltzen diren farmaziako txartela gorde dezatela eta errezetaren jarraibideen txartela (edo haren fotokopia).

Aseguratu bakoitzaren eta haren onuradunei aplikatu daitezkeen errenta-mailaren arabera, farmazia-prestazio anbulatorioan 8, 18 edo 60 euroko hileko mugak gainditzen dituzten pazienteek emandako kopuruen likidazioa, hiru hilabeteak igarota gauzatuko da, hau da, hiruhilekoaren ondorengo hilabetean.

Itzuli behar den kopurua zazpi eurokoa edo gutxiagokoa denean,



El 1 de julio cambia la aportación por los medicamentos en la farmacia*

¿Cuánto tengo que pagar por los medicamentos?

Aportación		Códigos en las recetas
Personas activas		
Con rentas inferiores a 18.000 €/año	40%	TS003
Con rentas entre 18.000 y 100.000 €/año	50%	TS004
Con rentas superiores a 100.000 €/año	60%	TS005
Pensionistas		
Con rentas inferiores a 18.000 €/año	10% Con un tope máximo de 8 €/mes	TS002
Con rentas entre 18.000 y 100.000 €/año	10% Con un tope máximo de 18 €/mes	TS002
Con rentas superiores a 100.000 €/año	60% Con un tope máximo de 60 €/mes	TS005
Otros colectivos		
Parados sin subsidio de desempleo	No paga	TS001
Rentas de integración social	No paga	TS001
Pensiones no contributivas	No paga	TS001
Síndrome de Alzheimer	No paga	TS001
Personas con discapacidad (LISMI)	No paga	TS001
Tratamientos derivados de accidentes de trabajo y enfermedad profesional	No paga	TS001

Excepciones:

- En los medicamentos de aportación reducida se paga un 10% del PVP hasta un máximo de 4,10€, independientemente del grupo de aportación farmacéutica al que pertenece el medicamento cuando se pague en aptitud de urgencia.
- Los productos biotecnológicos siguen con aportación por parte del paciente, mientras no se determine lo contrario en el momento de ser sometidos a aportación.

¿Cómo serán las recetas?
Hasta que se acabe el stock, igual que hasta ahora, más para pensionistas y ventas para activas. Posteriormente serán de color blanco.

¿Cuándo y cómo me devolverán lo que he abonado de más?
El importe de las aportaciones que excedan del máximo será objeto de reintegro, con una periodicidad máxima mensual, y el proceso será lo más cómodo y automatizado posible. Se recomienda a las personas que se encuentren en los grupos de aportación con derecho a reintegro, que guarden ticket o factura de la farmacia en la que aparezcan los datos del paciente, y volante de instrucciones de la receta (o fotocopia de la misma).

* En virtud del Real Decreto-Ley 16/2012, de 20 de abril, de medidas urgentes para garantizar la sostenibilidad del Sistema Nacional de Salud y mejorar la calidad y seguridad de sus prestaciones.

Koordainketari buruzko informazio-kartela

zenbateko hori itzultzeko hurrengo aldian itzuliko den kopuruari gehituko zaio. Diru-sarrera egingo da, titular pentsiodunaren pentsioa helbideratuta dagoen bankuko kontuan edo erabiltzaileak erabakitzen duen kontuan. Ekarpenerako datua errezetak fakturatzeko erregistrotik lortuko da errezeta elektronikoen sistema osotasunean ezarrita dagoen arte, eta Nafarroan urte amaieran ezartzea espero da.

Aldi baterako koderik ez duten errezetengatik, kopuruaren % 10 ordaindu beharko da pentsiodunen kasuan eta % 40 aktiboen kasuan (bi kasuetan Errege Dekretu Legegilean ezarritako gutxiengoa).

Koordainketa errentaren arabera

Gogoratuko denez, Osasunaren Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurrien 16/2012 Errege Dekretu Legegileak (uztailaren 1 ean, igandea, indarrean sartuko da) ekarpena aldatu du sendagaiengatik. Lehen adinaren arabera egiten zen farmaziako koordainketa (pentsionistek ez zuten ordaintzen), errentaren arabera izango da.

Ekarpenak honako era honetan egituratu dira:

Pertsona aktiboak:

- Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko errentak: % 40ko ekarpena
- Urtean 18.000 eta 100.000 euro arteko errentekin: % 50eko ekarpena
- Urtean 100.000 euro baino gehiagoko errentekin: % 60ko ekarpena

Pentsiodunak:

- Urtean 18.000 euro baino gutxiagoko errentekin: % 10, hilean gehienez ere 8 euro
- Urtean 18.000 eta 100.000 euro arteko errentekin: % 10, hilean gehienez ere 18 euro.
- Urtean 100.000 euro baino gehiagoko errentekin urtean % 60, hilean gehienez ere 60 euro.

Ondorengo taldeek ez dute sendagairik ordainduko:

- Langabeziako sorospenik gabeko langabeak
- Gizarteratzeko errentak
- Kontribuziorik gabeko pentsioak
- Sindrome toxikoa
- Ezintasuna duten pertsonak (LISMI)
- Lan-ezbeharrak eta laneko gaixotasuna

Aipatu behar da, koordainketarako bi salbuespen daudela errentaren arabera:

- Ekarpenera murriztuko sendagaietan PSParen % 10 ordaintzen da, gehienez ere 4,13 euro arte, pazientearen farmazia-ekarpenerako taldea alde batera utzita (ekarpenik gabeko taldeak salbu, ordaintzen ez dutenak).

- Produktu dietoterapikoetan, pazienteak ekarpenik egin gabe jarraitzen du, ekarpena egiteko dekretuak jasotzen duen araudia garatzen ez den bitartean.

Hasiera batean errezetak orain arteko berberak izaten jarraituko dute: gorriak pentsionistentzat eta berdeak aktiboentzat. Stock-a amaitzen denean, berriek ez dute kolorekako bereizgarri izango.

Herritarrentzako eta profesionalentzako informazio-kanpaina

Osasun Departamentuak informazio-kanpaina bat egin du azken asteotan osasun-langileentzat nahiz herritarrentzat farmazia-koordainketako jarraibide berriak errazte aldera.

Hala, iragan ekainaren 15ean dokumentazioa Farmazialarien Elkargoari igorri zitzaion; eta hilaren 22an osasun-langileei, Lehen Mailako Arretako nahiz Espezializatuko langileei.

Herritarrek informazioa osasun-zentro guztietan kontsultatu ahal izango dute, eta bertan kartelak

gaztelaniaz nahiz euskaraz jarri dira. Halaber, "[Salud Navarra](#)" blog-aren bidez, etengabeko elkarrizketa zabaldu da sare sozialetan; eta telefono bat jarriko da herritarrek izan ditzaketan zalantzatarako eta datorren astelehenetik, uztailak 2tik uztailaren 13ra martxan izango da, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 18:00etara: 948 013582.

Lurraldeen arteko kontseilua

Osasuneko kontseilari Marta Verak atzo Osasuneko Lurralde arteko Kontseiluan adierazi zuenez, Foru Komunitateko txosten juridikoek ikusi ez dutenez Nafarroako eskumenak hartzen dituela, apirilaren 20 ko 16/2012 Errege Dekretu Legegilea, nahitaez aplikagarria izango da Auzitegi Konstituzionalak haren konstituzionaltasunaren gainean epaia ematen duen arte.

Alde horretatik, adierazi zuen Nafarroako Gobernuak lehen eta gero ere "defizita murrizteko bideratutako neurri errealistei bere laguntza arduraz" emango diela

Bestalde, eta Ministerioak finantzatzen uzteko proposatu duen sendagaien zerrendari dagokionez, Vera kontseilariak baikor baloratu zuen Foru Komunitatearen proposamena onartzea, hau da, ohar sintomatologikoak dituzten sendagaiak finantzatzen jarraitzea edo patologia larrietan erabiltzen diren sindrome arinetarako; adibidez, libragarriak finantzatzen jarraituko da mugitu gabe, terminalak diren edo opiazeoekin egindako tratamenduak dituzten pazienteetan.